

**2007ko URRIAREN 4an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko urriaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria adierazi dute:  
I. B. P. de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
  - 2007ko irailaren 6an ospatutako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Larraulgo Ongizate Saileko Gizarte Zerbitzutako langilearen bulegorako ekipo informatiko baten hornikuntza, hala badagokio.
4. Larraulgo Ongizate Saileko Gizarte Zerbitzutako langileran bulegorako mobiliarioa hornitzea, hala badagokio.
5. Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.U. eta 1.2. E.U-ko urbanizazioa errezezpzionatzea, hala badagokio.
6. Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.U eta 1.2 E.U-ko etxebizitzetara lehen erabilare baimena ematea, hala badagokio.
7. 2007-2008 ikasturterako Larraulgo herritarrei kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.
8. Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 2.1 E.U-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta abala itzultzeko egin duen proposamena aztertzea.
9. I. B. jaunari U. auzoa XX eskubiko sarreran baldosa ipintzeko udal baimena ematea, hala badagokio.

10. Donostiako Gotzaitegiak San Esteban Elizako zimenterioa birgaitzeko aurkeztutako exekuzio proiektua onartzea, hala badagokio.
11. Fakturak eta ordainketak.
12. Beste batzuk.
13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2007 urteko irailaren 6ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

23/2007 Alkatetza Ebazpena, irailaren 11koa, Herri Ostatu tabernarko jarduera eskabidea jendeaurrean jarri eta espedientea Osakidetzara bidaltzea ebazten duena.

24/2007 Alkatetza Ebazpena, irailaren 24koa, San Esteban plazarako lau lorontzi hornitzeko kontratua Garra, S.L. baltzuari 724 gehi dagokion BEZ-eko kopuruan esleitzea ebazten duena.

25/2007, irailaren 24koa, San Esteban plazarako pibote bat hornitzeko kontratua Manufacturas Deportivas, S.L. baltzuari 95 euro gehi dagokion BEZ-eko kopuruan esleitzea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### ***LARRAULGO ONGIZATE SAILEKO GIZARTE ZERBITZUTAKO LANGILEAREN BULEGORAKO EKIPU INFORMATIKO BATEN HORNIKUNTZA, HALA BADAGOKIO.***

Ikusirik Karraulgo Ongizate Saila eraiki den Kultur-etxe berrian kokatuko dela eta ondorioz beharrezkoa dela gizarte langilearentzat ekipo informatiko baten hornidura.

Ikusirik Lantek baltzuak 1.077, 56 euroko aurrekontua aurkeztu duela.

Ikusirik 2007ko irailaren 28an Idazkari andreak luzaturiko txostenean adierazten duela bidezkoa dela kontratu hau hornidura-kontratu txikiaren moduan egitea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua) ezarritakoaren babesean. Izan ere, horrelako kontratuetarako gehieneko zenbatekoa, lege horren 176. artikulua dioenez, hamabi mila eta hogeituro eta hogeita lau zentimo da (12.020,24 €).

Bertaratuek, gaia aztertutik

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gizarte ongizateko sailerako ekipo informatikoa hornitzeko kontratu administratiboa Lantek baltzuari esleitzea, 1.056,77 eurotako kopuruan.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO ONGIZATE SAILEKO GIZARTE ZERBITZUTAKO LANGILERAN BULEGORAKO MOBILIARIOA HORNITZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik Ongizate saileko gizarte zerbitzutako langilearen bulegorako mobiliarioa hornitu beharra dagoela.

Ikusirik oraindik ez dela erabaki ze altzarien modelo, gaia mahai gainean uzten da beharrak finkatu eta aztertu arte.

#### **BOSGARREN PUNTOA**

**LARRAULGO AA.SS-ETAKO 4.1 E.U. ETA 1.2. E.U-KO URBANIZAZIOA ERREZEZPZIONATZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik R. R. jaunak, Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaren izenean aurkeztutako eskaera, non Larraulgo AA.SS-etako 4.1 eta 1.2 exekuzio unitateetako urbanizazioa errezezpzionatzea eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 27an luzaturiko txostenean dioena:

*2007ko uztailaren 28an Iñigo Aginalderekin ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen exekuzio proiektuari egokitzen zaiola adierazten dut eta urbanizazioan egon diren moldaketek Larraulgo araudia betetzen dutenez eta udalaren partetik*

*beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da urbanizazioa errepezionatzea.*

*Frontoiaren atzeko gas biltegi berriak martxan jartzen direnean urbanizazioaren bukaeran dagoen metalezko babesa kendu beharko da eta kanalizazioa bere bidetik eraman.*

Gaia azterturik, bertaratuek Iñigo Aginalde jaunaren, abstentzioz, 30/1992 legeak 28. artikuluan aurreikusitako kasu baten aurkitzen delako

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Lrraulgo AA.SS-etako 4.1 eta 1.2 exekuzio unitateetako urbanizazioa errepezionatzea, Udal Aholkulari Teknikariak ezarritako baldintzak bete beharko direlarik, hau da, frontoiaren atzeko gas biltegi berriak martxan jartzen direnean urbanizazioaren bukaeran dagoen metalezko babesa kendu beharko da eta kanalizazioa bere bidetik eraman.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

#### **SEIGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO AA.SS-ETAKO 4.1 E.U ETA 1.2 E.U-KO ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILARE BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

- **Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.Uko etxebizitzei lehen erabilera ematea, hala badagokio.**

Ikusirik R. R. jaunak Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaren izenean aurkezturiko idazkia, non Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.U.-ko sei etxebizitzen lehen erabilera baimena eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikoa den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 27an luzaturiko txostenean dioena:

Ekainaren 15ean J. L. aparejadorearekin ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “exekuzio proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta lehen okupazioko baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.

Egin diren obrako moldaketek ere Larraulgo araudia betetzen dute; unitatea eta ondoko partzelen arteko erlazioa edo ematea ahal den neutralena izango da, hirugarrengoei kalte ez egitearren.

Gaia azterturik, bertaratuek Iñigo Aginalde jaunaren, abstentzioz, 30/1992 legeak 28. artikuluan aurreikusitako kasu baten aurkitzen delako

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo AA.SS-etako 4.1 exekuzio unitateko sei etxebizitzetzi lehen erabilera ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

- **Larraulgo AA.SS-etako 1.2 E.Uko etxebizitzetzi lehen erabilera ematea, hala badagokio.**

Ikusirik R. R. jaunak Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaren izenean aurkezturiko idazkia, non Larraulgo AA.SS-etako 1.2 E.U.-ko bi etxebizitzetzi lehen erabilera baimena eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikoa den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 27an luzaturiko txostenean dioena:

Ekainaren 15ean J. L. aparejadorearekin ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “exekuzio proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta lehen okupazioko baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.

Gaia azterturik, bertaratuek Iñigo Aginalde jaunaren, abstentzioz, 30/1992 legeak 28. artikuluan aurreikusitako kasu baten aurkitzen delako

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo AA.SS-etako 1.2 exekuzio unitateko bi etxebizitzetzi lehen erabilera ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**2007-2008 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI KULTUR EKINTZAK ETA EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2007-2008 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, aho batez

ERABKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2007-2008 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzak kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK LARRAULGO AA.SS-ETAKO 2.1 E.U-AN URBANIZAZIO LANAK EGOKI AMAITUTZAT EMAN ETA ABALA ITZULTZEKO EGIN DUEN PROPOSAMENA AZTERTZEA.**

Ikusirik R. R. A. jaunak Gestio y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuaren izenean, Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko urbanizazio lanak bermatzeko Udaletxean jarria zuen 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euroko abalaren itzulera eskatu zuela.

Ikusirik 2007ko irailaren 6an ospatutako Udalbatzak ondorengo akordioa hartu zuela:

*“LEHENGOA.- Gestio y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuak aurkezturiko eskaera jendaurrena ipintzea hamabost egunetako epean egoki deritzonak erreklamazioak tarteratu ditzan.*

*BIGARRENA.- Aipatu epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ezean eta beti ere lehortu diren zortzi zuhaitzak abenduan landatuko direla bermatzeko 1.200 eurotako bermea ipini ondoren Udaletxean, Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuari 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euoroko abala itzultzea. 1.200 eurotako berme hau zuhaitzak landatu eta sei hilabetera itzuliko da.”*

Ikusirik Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak egin duen proposamena, non Udalari lehortu diren zuhaitzengatik 450 euro ordainduko dizkiola adierazten duen eta era honetan, Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euroko abala itzultzeko eskatzen du.

Zinegotzien artean eztabaidatu ondoren, oraindik Urbeltz auzoko plazako berdegunearen erabilera argitu gabe dagoela ondorioztatzen da eta beraz, proposamena udalaren interesentzako egokia ikusten da eta, Iñigo Aginalde zinegotziaren abstentzioz 30/1992, legeak 28 artikuluan aurreikusitako kasu batean aurkitzen delako

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gestión y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak egin duen proposamena onartzea eta ondorioz, aipatu baltzuak udalari 450 euro ordaindu eta abala itzultzeko eskaeraren jendaurreko epea inolako erreklamaziorik tarteratu gabe igarotzen bada, 2004032915 zenbakidun 92.266,50 euroko abala itzultzea Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuari.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **I. B. JAUNARI U. AUZOA XX ESKUBIKO SARRERAN BALDOSA IPINTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik 2007ko irailaren 14an I. B. P. A. jaunak aurkeztutako idazkia, non bere etxebizitzako (U. auzoa, XX esk) atzekaldean 3 m<sup>2</sup>ko baldosazko lur bat aldatzeko baimena eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak 2007ko irailaren 24an luzaturiko txotenean ondorengo dioela:

*“Materialaren aldaketa bat bakarrik dela ikusirik eta partzela pribatuaren berdegunea %50 baino gutxiago ez bada, egokia izango da udal baimena ematea.”*

Bertarauek, gaia aztertutik, aho batez

## ERABAKITZDEN DUTE

LEHENGOA.- I. B. P. A. jaunak esku duen obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**DONOSTIAKO GOTZAITEGIAK SAN ESTEBAN ELIZAKO ZIMENTERIOA BIRGAITZEKO AURKEZTUTAKO EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik Jose Maria Madina jaunak Donostiako Gotzaitegiaren izenean Larraulgo Elizako atariaren teilatua eraberritzeko I. G. eta I. A. arkituektuek garatutako Egiteko Proiektua Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialak 2007ko uztailaren 23an bisatua aurkeztu duela.

Ikusirik Oinarrizko Segurtasun eta Osasun azterlana ere aurkezten dela.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikariak 2007ko irailaren 27an luzaturiko txostenaren arabera, araudia eta egin beharreko lanak ikusita, proiektuan azaltzen diren materialak agokiak dira. Estrukturaren konponketak ere ez du teiltuaren itxura aldatzen. Beraz, teilatua eraberritzearen lanak egiteko udal baimean emateko aldeko iritzia adierazten da.

Gaia aztertutik, bertaratuek

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Donostiako Gotzaitegiak aurkeztutako Egiteko Proiektua onartzea eta San Esteban Elizako Zimenterioa konpontzeko udal baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KOPIDIN	76,77
IZFE	371,20
ZIZURKILGO UDALA	303,11
BERRIZ S.L.	1.183,20
AISLABROC, S.L.	236,92
PINTURAS DONOSTI, S.L.	364,24
JUAN GOIKOETXEA	8,10
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	32,77
E. E. B.	777,32
TOLOSALDEA GARATZEN	950,04
TOLOSALDEA GARATZEN	2.087,50
VADRISA	187,34
VADRISA	49,88
JESUS GURREA FRUTOS	502,80
MANPEL	24,36
G.A.O.	22,75
G.A.O.	28,00
CEPRENOR	112,73
IZFE, S.A.	1.431,87
GIPUZKOAKO URAK, S.A.	7.696,84
GARAJE EGIN	312,39
BABESA SUZAI, S.A.	98,00
ZALDUA	23,73
EINBER	414,03
ARGITU	156,14
TELEFONICA	2,33
TELEFONICA	29,20
TELEFONICA	89,48
TELEFONICA	18,62
TELEFONICA	15,89
EUSKALTEL	96,41

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **17.703,96 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**HAMABIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK.**

*Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.*

- *Aiztondo Zerbitzuen Manokomunitateari 2007 ekitaldiari dagozkion 3. eta 4. ekarpenak burutzea, hala badagokio.*

Ikusirik 2007 urteko urriaren 4an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitetik igorritako idatzia, non Larraulgo Udalari 2007 ekitaldiko 3.go eta 4.go hiruhilabetei dagozkion 20.453,28 eurotako kopurua duen ekarpena burutzeko eskaera luzatzen zaion.

Gaia azterturik bertaratuek

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 20.453,28 eurotako diru ekarpena egitea, 2007 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetei dagokizon diru ekarpenaren kontzeptupean.

- **Idazkari andreak Tolomendik diruz lagundu ahal izateko dirulaguntzak aurkezteko epea zabaldu dela adierazi du, 2007ko irailaren 27tik urriaren 26ra bitartean.**

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

**HAMAIRUGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA